

# **TXAKURRAK EUKITEKO BETE BEHARREKO**

## **BALDINTZAK**

- Txakurrak identifikauta egon behar dabe, mikrotxipa ipinita eta altaren edo eskualdaketaren barri emonda Eusko Jaurlaritzara, Nekazaritza eta Arrantza Sailera; are gehiago txakurra arriskutsuen zerrendan sartuta badago.
- Txakurrak lotuta euki behar dira jentea pasetan dan lekuetan: auzo bideetan, Leako ibilbide ondoan, errepide inguruetan, ....; lotuta metro bi baino luzeagoa ez dan eta luzatu ezinekoa dan kate edo uhal gogor batekin eta muturrekoa ipinita (txakurra arriskutsuen zerrendan badago)
- Txakurrak solte badagoz, ugazaba edo arduradun bategaz egon behar dabe, beti be distantzia txikian ingurukoentzako arriskua ekiditzeko.
- Gomendio honeek ez betetzearen ondorioz, ezbeharren bat gertauko balitz, udalak neurriak hartuko leukez.

*Danok jakin daizuen kaleratzen dana, Aulestin 2011ko abenduaren 29an*

ALKATEAK, Mikel Ansotegi Jaio